

MARK IDEIUNAI

Gazteiz'ko seme Olabide'tar Erraimun iesulagunaren Itun Zar eta Berria, IDAZTEUN izenez Grijelmo'ren irarkolan nue-nean, egun batez Andoain'era joan nintzan. Antxe, nere jaioterrian Lekuona Zarra Berrozpe'ko lekaimien apaiz genduan, eta arekin itz-aspertutxoia on izango zitzaidala nerizkion.

Ari eta ari esan nion:

—Pixkaka-pixkaka irarkolako langilleak egiten dizkidaten alakoxe okertxoak zuzenduz, gero ies-egiten dizkidatenak ere izaten ditudala eta oriek guztiak sallean lerro-lerro biltzen asi naiz, ondoren Idazteun osoaren azkeneko orrietan irakurleentzat adirazpen'edo izango ba'lira... adi-adi irakurriko duenik sortuko ba'litz, beintzat.

Eta Lekuona'k:

—Alperrik ari aiz. Ik ametsetan dittuken azkeneko orri orietakoei ifiork ere ez begiratuko.

Ona beraz:

Mark deunaren idaztiari, itz-aurretxoan auxe aurkituko diozu:

«Erroma'n bertan, 44-garren urtean'edo agertu zan Berri Onarren idazti au.» Gero, bein ikasitakoak sakonago aztertzen nabillela, beste erdaratan egin dituzten itzulpen asko ere nere eskuetara agertu zaizkit, eta «44» ori inon ez det aurkittu al izan. Diralako okertxoak zuzenduz, nere burua erotu-bearrean mien artan, lantxo aspergarri ortarako lagunak aurkitu izan nai nituan. Bafian, guztiak zer-egin aunditan sarturik zebil-tzala, eta itz leunez oso ezetz pollita esan zidaten.

Beste euskal-idazleren bati olakorik gertatzen ote-zaion? Ortaz bakoitzak aitorten iatorra egin dezaigun nai nuke.

Beintzat, beste bein auxe gertatu zitzaidan: ARGIA aste-rokoan nintzan eta ieki baterako olerkari txanbelinak idazki politt-politta biali zidan, eta irarkolara eraman nuan. Izki be-rexix, beltz-beltz irarri zezaten eskatu nien. Ondoren, zuzen ote-zegon ikusterakoan, langilleari zuzenketak egin; zitzan es-katu nion. Arek baietz eta ez nendilla beldur izan. Bi egun bano len, olerkaria txinpartak zerizkiola etorri zitzaidan. Noski:

—Au al da idazleak izan ditzazun darabilzun gizabidea? Nik geiago ez dizut ezer idatziko. Narratx-kume alakoa!!!!

Errudun zer izan nuan?

Langillea euskalduna eta Donosti bertako semea... eta, *Gaz-r* telupe'ra maiz.xamar joaten zitzaidana, eta an ukalondoa ja-sotzen. Olerkia txukun atera naiz asi zitzaidanean, begiak txu-rrotez lauso...

Olabide'rena bukatu ondoren, onako ontaz jabetu nintzan. Alegia: Mark deuhari akatsak ateratzen ibiltzen diranak ba-ditugula. Amaren magalean ikasitako izkuntza erdi-ikasi on-doren orko erdaratan asko-ikasi omen ditugunak Mark deuna-ren Ellade-izkuntza nolabaitekoa dala esanez dabilta. Orobat latinkeri asko sartu dizkigula, bai-aramerakeriak ere. Ori guztia

egi litzakela ere, eta ortan batetxo arrituenik ez degula, Mark deuna bere garaikoentzat aritu zitzaigun. Bestalde latin-izkuntzako Zizeron-Kaikeron'en arrandikeriak zertarako zituzkean? Dakigunez .ferri Xumea." jakitunen asmakeriak bereganatu gabe ibiltzen zaigu. Eta orain bertan ere gure artean orixe gertatzen zaigu.

Euskaldunok oso &erri zale gera. Ona: etxeberri, ezkonberri, bertsoberri, apaizberri, sonekoberri, zidorberri.

Gu bezelaxe ixraeldarrak guztia berri nai zuten arean:

«ez bedi zuen aotik lengo itzik sortu.» (1 Sam 2 3).

«Abestu Yaube'ri abesti berri bat.» (Eresia 96 1).

«Ara! Dena berri egiten dut.» Alegia Ni *berri* Naiz. (Ion'i Agerian 21 5).

Mark deuna IESU-Kristo'ren irakatsiei oso izen egokia emanenez asi zitzaigun: «Jainkoareh Seme Jesus Kristoren BERRI ona» (Mk 1, 1) Ion Ukuzlearen aoan ere Mark'ek onela ipintzen digu: «Itzuli zaitezte eta BERRI On au sinistazue» (Mk 1 14).

Itzuli itzaren mamia era askotara uler genezake: gizadia rion ibili. zaigu? .Guztiok .bein. ere okertu gabe zuzenean iraun al degu?

Gai oni buruz Formosa'n nintzanean .zertxo polita gertatu zitzaidan: Gudumutilletakb agintaritxoak tayeldar alaba emaztetzat nai zuan. Gizona artean ez kistar, eta neskatxa oso gaztea, Gotzai jaunak ezkontza-baimenik ez eman. Ontan, 1968' garrenean txangoz Euzkadi'ra joan riintzan. Ondoren nere tokian geldittu zan apaiz kanadatar iesulagunak Ian berriak egin bear zituala, eta gure agintaritxoa ukuzi zuan eta aren ezkontza eliza-arauz zuzendii. Berriz lengo tokira eldu nintzanean eliz-agirietan guztia garbi nekusan. Agintaritxoa igandero zintzo zetorkigun iaupa... deuna entzun eta Gure Iauna artzera. Aren. ematze eta alaba zarrena ere aitorkuntzara biltzen zitzazkidan. Agintaritxoa bein ere ez. Ontan tayeldar kistarren bum zeginari galdetu nion:

—Elena'txoren aita zergatik ez zaigu aitorketa egitera etortzen?

—Neronek ere galdetu izan diot, eta arek beti erantzun bakar auxe du: ** —Ni ezertan * ere ez naiz oker ibili... *

Orain nere kezka: Sinismeneko Egiak adirazi zizkiotenean ulertu zitzan eran itz-egin al' zioten? Euskaldunok onako au zenbaitetan abestu ote-degu?

Damu det Jauna, biotz-biotzez
ZU ofenditu Izana:
Ez, ez geiago pekatu-
Nere Jaungoiko laztana.

.wi N :

Bestalde, txertaketak zertarako diran ba-dakite. Artean sabian dituztela larraran-landare gazteak txertatu egiten dituzte. Txertakak ale zimurrak izaten. Dalako larraran landare orrek zer kutsu du? Aurretik okerra non izan du?

Gizonok ere txertu bear izaten degu: umetan txertatu ginduzen. Geroago ere ludia-zear ibiltzekotan ba'zera baztanga-txertua eskatzen dizute, eta idaztitxo orian ezarriko txertatu zinduzteneko eguna, ilia eta urtea. Sonean ez dakigun kutsua dakargu... eta sofiaren lagun degun «gogo» kutsurik gabe al degu?

Mark deunak *itzuli* aukeratu zigun. Gaur idatzi bear ba'lu *txertua ar zazute* esango ote-liguke?

Beintzat, kistar izateak asko eskatzen digu.

«Eman da zabal zazu
Munduan frutua...»

Iparragirre urretxuarrak gure ARITZARI orixe eskatzen dio: gaur ere bai. Eta guk maite degun ARITZA afia ez al degu izan bear?

Etxeberria'tar P. s. j.
Ilo-Ilo: 1981.1.10